

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Tokiko Gobernu Batzarraren 2016ko irailaren 9ko erabakia, Kontratazio Mahaiko kidea bat izendatzeari buruzkoa**

Tokiko Gobernu Batzarraren 2015eko ekainaren 19ko erabaki baten bitartez zehaztu zen Kontratazio Mahaia osatzen duen organo gisa Toki Gobernu Batzarrari lagundu ziezaion, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen legean xedatutakoaren ildotik —Tokiko Gobernu eraberritzeko neurriak biltzen dituen 57/2003 Legean emandako idazketa—.

Pedro José Goti González jauna, Aholkularitza Juridikoaren titularra, kide izendatu zen.

Erretiroa hartzearen ondorioz kide horrek kargua utzi egin zuenez 2016ko abuztuaren 25ean, mahaiaren osatze aldatu beharra dago.

Horrenbestez, erabaki-proposamen hau egiten dio alkate lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrari:

erabaki-proposamena

Lehena. Jon Kepa Zarrabe García Kontratazio Mahaiko kide titular izendatzea. Aholkularitza Juridikoan dauden legelarietako batek ordeztuko du.

Azken xedapena. Datoren biharamunean jarriko da indarrean erabaki hau, ALHAOn eta Udalaren web-gunean zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 9an

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**